



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 6a

18. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Sodena enpresa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafiko-gorabehereri, istripuei edo harrapatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, oinarritzko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **IRIZPENA**

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak 2020ko urtarrilaren 22an eta otsailaren 4an egindako bileran onetsia.

### **Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Lege proposamena**

HITZAURREA (Kenduta)

#### **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

**1. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitatearen sinboloak

Nafarroako Foru Komunitateak hauek ditu nor-tasun-sinbolo eskusiboak: Nafarroaren bandera, armarrria eta ereserkia.

**2. artikulua.** Nafarroaren sinboloen erabilera.

1. 1. Nafarroako armarrriaren eta banderaren erabilera erreserbatuta utziko da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta foru erakunde-  
deen sinbolo edo logotipo nagusi eta eskusiboak izateko.

2. Debeku da Nafarroako armarrrian edo banderaren edozein sinbolo, sigla edo logotipo erabil-tzea.

3. Produktuen edo salerosketa-gaien jatorria-ren adierazgarri gisa bandera eta armarrria erabili ahal izateko, bai eta alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo edonolako entitate pribatu-  
tuen sinbolo edo logotipo gisa erabili ahal izateko ere, Nafarroako Gobernu-  
ko departamentu esku-  
dunaren administrazio-baimena beharko da.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira Nafarro-  
ako banderaren, armarrriaren eta ereserkiaren era-  
bilera-baldintzak kirol-, kultura- eta bestelako eki-  
taldietan, zeinetan herritarrek Foru Komunitatea  
ordezkatzeko parte hartzen baitute.

**3. artikulua.** Babes juridikoko araubidea.

Nafarroaren sinboloek duten babes juridikoa  
Estatuko legeek Estatuaren sinboloei ematen die-  
ten berbera da.

**4. artikulua.** (Kenduta).

#### **II. KAPITULUA** **Nafarroako bandera**

**5. artikulua.** Nafarroako banderaren deskriba-  
pena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobe-  
tzeari buruzko Lege Organikoaren 7.2 artikuluan  
ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako bandera ofiziala  
kolorez gorria da, Nafarroako armarrria du erdian,  
laukizuzen-forman eginiko ehunki baten gainean,  
zeinak luzera eta zabalera proportzional baina  
aldakorrak izanzen baititu.

**6. artikulua.** (Kenduta).

**7. artikulua.** Erakundeek, Foru Komunitateko  
administrazioak eta foru-sektore publiko instituzio-  
nalak eginiko erabilera publikoa.

Nafarroako bandera lehentasuneko tokian paratuko da erakusgai, betiere Espainiakoari gailentasuna kendu gabe, honako hauen egoitza administratibo eta zerbitzu-erakin guztien kanpoaldean: foru erakundeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Foru Sektore Publiko Instituzionala eta, halaber, aipatu erakinen barruan, bertako agintarien bulego ofizialetan eta haietako gainerako eremu muntadunetan.

**8. artikulua.** (Kenduta).

**9. artikulua.** Nafarroako banderaren lehentasuneko tokia.

Nafarroako bandera foru erakundeetako, Foru Komunitateko administrazioa eta Sektore Publiko Instituzionala egoitza eta eraikinen kanpoaldean eta barrenaldean erabiltzen denean, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehentasuneko tokian paratuko da, betiere Espainiako banderari dagokion gailentasuna kaltetu gabe.

**10. artikulua.** Banderaren paratze-hurrenkera.

1. Nafarroako bandera, Espainiako banderarekin eta ez besterekin batera paratuta dagoenean, lehendakariaren edo bandera paratu duenaren ezker aldean jarriko da, eta eskuinaldean, ikusleentzat edo kalean haiei begira dagoenarentzat. Udaletako banderekin edo Nafarroako toki administrazioa osaturik bere bandera propioa darabilen beste edozein entitatearekin jartzen denean, Espainiakoaren eskuinaldean kokatuko da, bandera-kopurua bakoitia denean, eta haren ezker aldean, bikoitia denean.

Ez da zilegi Nafarroako bandera berdintasun-baldintzetan paratzea enpresen, merkataritzamarken, auzokide-elkarteen edo entitate pribatuen banderaren aldamenean.

2. Ikusgai jartzen den Nafarroako banderaren tamaina ezin izanen da Espainiakoarena baino handiagoa izan, ez eta beste entitate bartzuenarena baino txikiagoa ere, horien ondoan paratua agertzen denean.

**11. artikulua.** Nafarroako banderaren gorazaketa eta Nafarroako sinboloen sustapena.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Nafarroako bandera omentzeko ekitaldiak egin eta gizarte zibilak hura erabil dezan sustatzea, horretarako hartuko dituen neurrien bidez.

2. Halaber, zilegi izanen du Nafarroako sinboloen ezagutza eta erabilera sustatzea azterlan eta ikerlanak eginez eta erakusketa, entzunaldi edo sariketarako deialdien bidez.

3. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Nafarroako banderaren agerpen bisuala sustatzea inguruabar historikoak edo Nafarroaren identitate politikoa islatzekoak dituztela irizten dien lekuetan.

**12. artikulua.** (Kenduta).

**13. artikulua.** (Kenduta).

### III. KAPITULUA Nafarroako armarría

**14. artikulua.** Nafarroako armarríaren deskribapena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako armarría urrezko katez osaturik dago, hondo gorri gainean, esmeralda bat erdian, bere kate-mailazko zortzi besoen elkargune gisa, eta haien gainean errege-koroa, Nafarroako antzinako erreinuaren sinboloa.

Hori horrela delarik ere, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du irudi korporatibo bezala Nafarroako armarrí ofizialaren logotipo bat hartzea, diseinu grafiko soilagokoa eta garaian garaiko gustu estetikotara eguneratua.

**15. artikulua.** Nafarroako armarríaren erabilera publikoa.

Nafarroako armarría edo haren logotipoa, Nafarroako banderaren barrenean ez ezik, hauek ere egon beharko da:

a) Foru Komunitateko erakunde eta administrazio publikoen egoitzak kokaturik dauden eraikinetako agintari-bulegoak eta bilera-gelak.

b) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Instituzionalaren ibilgailu-parkeko ibilgailuak.

c) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Instituzionalaren ordezkari diren agintariek luzatutako edozein diploma, ziurtagiri edo titulu.

d) Foru Komunitateko erakundeetan, administrazioan eta Foru Sektore Publiko Instituzionalan ofizialki erabiltzen diren agiri, inprimaki, zigilu eta menbreteak.

e) Foru Komunitateko erakundeen, administrazio publikoen eta Foru Sektore Publiko Instituzionalaren argitalpenak eta iragarki ofizialak.

f) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Instituzionalaren ordezkari diren agintariek erabilitako bereizgarri ofizialak.

g) Erabilera ofizialeko zenbait toki edo objektu, haien ordezkartasun bereziagatik hala erabakitzen denean.

h) Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezartzen dituen gainerako kasuetan.

#### **IV. KAPITULUA** **Nafarroako ereserkia**

**16. artikulua.** Nafarroako ereserkia.

Nafarroako ereserkia "Gorteen ereserkia" deritzona da.

**17. artikulua.** Ekitaldi ofizialetan interpretatzea.

Nafarroako ereserkia Foru Komunitateko erakundeek antolatzen dituzten ekitaldi ofizial publiko eta esanahi berezikoaren hasieran edo bukaeran interpretatu behar da.

**18. artikulua.** Bertsio ez-ofizialen erabileraren debekua.

Debeku da Nafarroako ereserkia erabiltzea haren esanahi handia gutxiesten duten ekitaldi, modu edo bertsioetan.

#### **V. KAPITULUA** (Kenduta)

**Xedapen gehigarri bakarra.** (Kenduta)

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe gelditzen dira apirilaren 6ko 3/2017 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Erregelamendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-mailako xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako ibaietako presa nahiz presa txikiak kentzeari eta natur ibilguak leheneratzeari buruz (52\_10-19-PES- 00140). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

**Nafarroako Gobernuaren jarrera:**

Ibaiak garrantzi ekologiko eta hidrológico handiko korridore naturalak dira. Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian ezarritako kudeaketa-helburuen artean daude ibaiak bere dinamika eta funtzionamendua naturatik edo erreferentziatik hurbilen berreraiki ahal izateko ibai-prozesuak berreskuratzea. Horrek garrantzi berezia hartzen du Natura 2000 Sareko espazioetan, horietan Batasunaren intereseko habitatak eta ibai-espezieak kontserbatu eta hobetu behar baitira.

Presak eta presa txikiak oztopoak dira, ibaien iragazkortasuna gutxitzen dutenak eta ibaiertzeko ekosistemak aldatzen dituztenak, sedimentuen eta mantenugaien isuraldatzea aldatzen dutenak, espezieen migrazioa murrizten dutenak eta uraren tenperatura ere alda dezaketenak. Nafarroako ibaietan 700 oztopo baino gehiago daude, eta

horietako asko gaindiezinak dira arrain-faunarentzat. Oztopo horien artean, beharrezkotzat jotzen da erabiltzen ez direnei eta kontzesiorik ez dutenei buruz lan egitea eta haiek identifikatzea, eta, hala badagokio, horiek ezabatzeko beharrezko prozedurak egitea eta tarte horietan naturatik edo erreferentziatik gertuen dagoen ibai-dinamika berreskuratzea. Erabiltzen diren presei dagokienez, ibaien iragazkortasuna bermatzera bideratu behar dira jarduketak, espezie migratzaileen igarotzea bermatuko duten azpiegiturak ezarriz.

Ibilgu naturalak berreskuratze lanetan oso garrantzitsutzat jotzen da ibai-espezieen habitatak hobetzea, habitat degradatuak leheneratzea eta espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko jarduketak egitea.

**2019an egindako eta gauzatzen ari diren jarduketak**Berezko inbertsioak

Hona hemen 2019ko aurrekontu orokorren kontura arlo horretan egindako obrak:

Elgorriagako errotako presa eraistea eta ibaiko aisialdirako gune bat sortzea. Eraispén horrekin, Ezkurra ibaitik 10 km inguru iragazkortuko dira, Zubietako zentralako presaraino.

- Araxes ibaiaren ezker aldean egokitzeko lanak, 2018an Arribe-Atalluko errotaren presa eraitsi ondoren. Lurzati pribatuetan eragina izan duten erorketak, ezker aldean gertatutakoak, konpontzea.

- Tuterako Tetones ibarbasoaren ingurumena lehengoratzeko. 2018an hasitako lanak amaitzea. Lehengoratzeko horren bidez, nabarmen handitzen da ur libreko xaflaren azalera Nafarroako ibarbaso handiengan, eta hobetu egiten da txori zezena edo bisoi europarra bezalako espezieen habitata, galzorian baitaude.

- Alhama ibaia birpopulatzea, Fitero hirigunetik gertu. Ibaiertzeko basoa sortzea eta landaredi exotiko inbaditzailea (Arundo donax) kentzea.

- Caparrosoko hirigunearen aurrean 2 ha makal aloktonoren kimuak kentzea. Kimu horiek aurreko birpopulatze batetik datoz, zeinaren motzondoak ez baitziren kendu. Andui bakoitzaren altuera 15 metrotik gorakoa da, eta kimu bakoitzaren batez besteko lodiera 15 cm ingurukoa da.

- Tafallako hiriguneko Cidacos ibaian 2 lurzati txikiren baso-berritzea. Ailanthus altissima espezie exotiko inbaditzaileak erabat okupatzen zituen lurzati horiek. Bertako erriberako espezieak landatu dira.

#### Proiektu europarren esparruan egindako jarduketak

H2O Gurea: Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatutako proiektua. Nafarroatik igarotzen diren Kantauri arroko ibaiak (Bidasoa, Urdazuri, Urumea, Leitzarain eta Araxes) partekatzen dituzten administrazioen baterako lana. 2019an ibaiak lehengoratzeko obra pilotu bat egin da Sunbillan bioingeniaritzako soluzioekin.

IREKIBAI: Life proiektua, ibai irekiak; Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitatea eta habitatak hobetzea. 2019an honako hauek egin dira:

- Ibaia lehengoratzeko obra pilotua, Arraiozen (Baztan) bioingeniaritzako soluzioekin.

- Iturenen, 2017an Iturengo haztegiko presa eraisteko lanen barruan, presa zaharretik ibaian gora babestu da eskuineko ertza, Krainer horma baten bidez (130 metro). Presaren erdiko zutabea ere zaharberritu dute, eta azpiegitura zaharraren lekukotza gisa errespetatu.

#### **2020rako aurreikuspenak**

Datozen asteetan, 2020an egin beharreko jardueren plangintza taxutuko da. Horien artean, administrazio-mailan, 6 presa eraisteko lanean ari dira zenbait ibai-arrotan, bai eta ibaiertzak lehengoratzeko zenbait jarduketatan ere.

Halaber, IREKIBAI proiektuaren barruan, Bidasoaren arroan zenbait jarduketa prestatzen ari dira.

Iruñean, 2019ko azaroaren 14an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zertan den amianto-eraikuntzak, -materialak eta -egiturak kentzeko eta tratatzeko prozesua. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-19-PES-00141) zeinean "informazioa eskatzen baitu amiantozko

eraikinetatik hura erretiratzeko eta tratatzeko prozesuari buruz". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Amiantozko eraikuntzak, materialak eta egiturak erretiratzeko eta trata-tzeko prozesuaren egungo egoerari dagokionez:

1.- Orain arte ezarritako neurrien eraginkortasunaren eta efizientziaren balorazioa.

Neurriren bat ezarri al da, eta haren eraginkortasuna eta efizientzia baloratu al dira?

Gobernu berria eratu eta Administrazioaren egituraren arduradunak izendatu ondoren, uztailetik urrira bitartean ekintza-planaren beharra azterzen jardun da.

Honako hauek dira administrazio publikoko hainbat instantziatetik amiantoaren gainean egiten diren jarduketako historikoak:

#### 1. NOPLOI:

a. Amiantoaren eraginpean dauden langileen erregistroa eguneratzea, Laneko Osasuna Zaintzeko Atalaren parte-hartzearekin, kontingentzia zehazteari buruzko informazioa emateko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin osa-tutako batzorde mistoan. Lanean amianto-zuntzen eragin-pean egoteari buruzko zalantzazko kasuak ebatzi nahi ditu batzordeak, judizializatzea saihesteko.

b. Osasun Ministerioarekin lankidetzan aritzea PIVISTEA urteko txostenak egiteko. (<https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/docs/PIVISTEA2016.pdf>)

c. Eraikuntzako enpresek amiantoa kentzeko planen beteera-razpenari buruz aurkeztutako txostenak eta kontrola egitea. Enpresa horiek LSO/NOPLOIko Laneko Arriskuaren Prebentziarako Atalak RERA-Amianto-arriskuagatik Enpresen Erregis-troan inskribatutakoak izan beharko dute.

Txosten horien kopurua bikoiztu egin da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (n=90).

d. MCA identifikatzeko ikastaro bat antolatu da eraikuntzako teknikarientzat, agente eta erakunde prebentiboentzat eta profesionalentzat.

e. Uztailaren 18an Nafarroako Erdialdean izandako Cidacos ibaiaren uholdeen ondorioz, Nafarroako Gobernuak jarrai-bideak eman zizkien kalte-tutako udalei, baratzeetan eta ibaiaren ibilguan amiantoa duten materialen hondakinak biltzeko. Era berean, eskaini zuen ordaintzea enpresa espe-zializatu batek hondakin horien pilak kentzeko lanak egin zi-tzala, baina toki-erakundeak ez dira eskaintza horretaz ba-liatu.

Testuinguru horretan, uholdeen ondoren, NOPLOIko Inguru-men Osasuneko Atalak txosten bat egin zuen Tafallako bizi-lagunek ibaiaren ertzak garbitzeko antolatutako auzolana-ren aurreko egoerari buruz.

#### 2. O-NOZeko Nafarroako Ospitaleguneko Pneumologia Zerbitzua

LSOko (NOPLOI) Osasunaren Zaintza Atalean erregistratutako amiantoaren eraginpeko langileen okupazio osteko osasunaren zaintza egiten da.

#### 3. Garapen Ekonomikorako Departamentua

a. Departamentu horretan kokatuta dago RERA-Amianto-arriskuagatik Enpresen Erregistroa.

b. Amiantoa kentzeko lan-planak onesten dira, NOPLOIko La-neko Arriskuaren Prebentziarako Atalak eta Lan Ikuskaritzak al-deko txostena emanda.

c. Urtero, zuntz-zementuzko estalki hauskorrak ordeztzeko lagun-tza ekonomikoak ematen dira.

4. Ingurumen-osasunaren arloan eskuduna den departamentua

a. MCA hondakinen kudeaketa

5. Etxebizitza arloan eskuduna den departamentua

a. MCAREN kokapenen erregistroa, 50 urtetik gorako etxebizitza eta 75 urtetik gorako familia bakarreko etxebizitzetan, 2018tik aurrera.

6. Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaile-tza (Estatuko Administra-zio Orokorra)

a. Amiantoa kentzeko enpresek aurkeztutako planen beteera-razpenari buruzko txostenak eta kontrola egitea.

2.- Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurri berriak, neurri gehiago ezartzen badu.

2019ko apirilean, Osasun Departamentuak, Nafarroako Gobernuak or-dezkatuz, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean aurkeztu zuen Nafarroan Amiantoa kentzeko Plan Zuzendaria, zeina parlamentu horrek 2017ko irailean eskatua baitzuen.

Testuinguru estrategiko horretan, hurrengo urratsa da Nafarroako erreali-tatera eta baldintzetara egokitutako ekintza-plana egitea.

3.- Nafarroan amiantoa zertan den adierazten duen dokumentazioa igortzea eskatzen dut.

Nafarroan amiantoa kentzeko plan zuzendaria, arestian aipatutakoa, kontsultatu beharra dago. Laster Nafarroako Gobernuaren webgunee-tan izanen da berriz, hasierako bertsioan a-tzemandako akats batzuk zu-zendu ondoren.

#### 1. Amiantoa ikusgai duten materialak (MCA):

Estalkien prospekzioaren aurretiazko azterketa. Datu-iturria: SITNA. NUPeko THERRAE ikerketa-taldearen teledetekzio atalaren azterketa.

382 km (10.285 tona)

Ziurgabetasun txikiarekin edo ertainarekin zuntz-zementua duten eraikinen kopurua eta zuntz-zementuaren azalera. Nafarroa 2018

Comarca	Uso industrial		Uso agropecuario		No clasificado		TOTALES	
	Nº recintos	Superficie (m2)	Nº recintos	Superficie (m2)	Nº recintos	Superficie (m2)	Nº recintos	Superficie (m2)
1. BIDASOA	51	42,158	237	47,042	82	14,096	370	103,296
2. LARRAUN-LEITZALDEA	30	24,804	249	60,605	57	8,442	336	93,851
3. SAKANA	185	202,681	577	124,855	299	44,676	1,061	372,212
4. PAMPLONA-IRUÑEA	1,169	986,066	938	329,821	2,258	560,485	4,365	1,876,372
5. PIRINEO	17	5,012	437	78,468	176	17,745	630	101,225
6. PREPIRINEO	21	33,754	304	97,536	153	31,746	478	163,036
7. TIERRA ESTELLA-LIZARRALDEA	421	360,675	3,201	804,030	1,805	241,704	5,427	1,406,408
8. VALDIZARBE-NOVENERA	32	24,580	802	168,818	476	63,541	1,310	256,939
9. ZONA MEDIA	86	70,369	1,111	287,075	377	52,571	1,574	410,014
10. COMARCA DE SANGUESA	72	51,994	675	142,135	398	59,605	1,145	253,734
11. RIBERA ALTA	136	166,758	862	268,357	370	71,951	1,368	507,066
12. RIBERA	297	401,851	1,072	279,141	676	143,505	2,045	824,497
13. TOTAL	2,517	2,370,702	10,465	2,687,883	7,127	1,310,065	20,109	6,368,651

Hoditeriak. Iturria: Hornidurako eta saneamentuko mankomunitateak

- 234 km zerbitzuan, (5.773 t) – % 61
- 46 km zerbitzutik kanpo (776 t) - % 12
- 102 km (3.736 t) ezezaguna – % 27

Ureztalurrak. Iturria: INTIA 10.188 hektarea, 286 km.

## 2. Isuriak

Datu-iturria: Nafarroako Gobernuan hondakinak kudeatzeko eskumena duen departamentuaren datu-basea.

Indarrean dagoen araudiaren aurretik (1481/2001 Errege Dekretua) isur-ketak kantitate handiagoan edo txikiagoan izan zituzten 1360 kokaleku, itxita edo giltza emanda daudenak, lurrazalean hondakinik ez dutenak eta ingurunean nahiko naturalizatuta daudenak. MCAREN presentziari buruzko daturik ez dago.

3. Ezkutuko MCAREN presentziari buruzko zenbatespenak

1960tik 1990era bitarteko urteetan eraikitako eraikinen instalazioak (zk):	
Garajeak	425 -908
Ur bero sanitarioa	380 -949
Igogailuak	¿?
Zorrotenak eta bestelako elementuak	¿?

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna



## Galdera, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko ea zertan den “Panpako luma-mottoaren” eta “sagar-barraskiloaren” izurritea (53\_10-19-PES-00142). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

#### PANPAKO LUMA-MOTTOA

##### Espeziearen egoera

“Panpako luma-mottoa” [Cortaderia selloana (Schultes & Schultes fil.) Ascherson & Grabner] espezie exotiko inbaditzailea (EEI) da, Hego Amerikan jatorria duena. Batez ere klima epeleko eta ozeanikoko eremuetan banatzen da, baina baita,

gutxiagotan bada ere, klima mediterraneoko eremuetan ere.

Europan sartu zuten XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen erdialdea bitartean, landare apaingarri gisa. Ordutik, haren lorezaintzako erabilera mundu osoan zabaldu da.

Espanian dauden 20 espezie exotiko inbaditzaile kaltegarrien artean dago<sup>(1)</sup>. Deustun aipatu zen lehen aldiz (1949), eta handik gutxira, 1953an, Santanderko badian<sup>(2)</sup>. Ordutik aurrera, Cortaderiaren populazioak etengabe eta esponentzialki hedatzen hasi ziren Kantauri isurialde osoan zehar (EAE, Kantabria, Asturias eta Galizia).


Gaur egun, jakina da autonomia-erkidego guztietan dagoela, eta haren joera demografikoa hedakorra da. Gainera, nabarmentzekoa da landare hau berarentzat kaltegarritzat jotzen ziren eremuetan hauteman dela, hala nola mendialdean eta penintsulako erdialdean<sup>(3)</sup>.

Nafarroan gutxitan aurkitzen den espeziea da. Gure erkidegoan elkartzen diren Europako hiru eskualde biogeografikoetan aipatzen da (Atlantikoa, Mediterranea eta Alpinoa), baina eskualde atlantikoan (ipar-mendebaldeko Nafarroa hezea), naturalizatzeko eta hedatzeko potentzialtasuna handiagoa da ezaugarri klimatikoak direla eta: tenperatura leunak, izotz gutxi eta hezetasun handia.

(1) GEIB 2006. TOP 20: Espainian dauden 20 espezie exotiko inbaditzaile kaltegarrienak. GEIB, Grupo Especialista en Invasiones Biológicas, Serie Técnica N.2.

(2) Campos, J.A. 2010. Flora alóctona del País Vasco y su influencia en la vegetación. Doktore-tesia. Argitaratu gabea. Leioa (Euskal Herriko Unibertsitatea)

(3) MITECO (Trantsizio Ekologikorako Ministerioa) 2018. Kontroleko estrategiak - Orientazio-irizpideak. Panpako luma-mottoa (Cortaderia selloana) eta Cortaderiako beste espezie batzuk kudeatzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko estrategia. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak 2018ko ekainaren 1ean onetsitako bertsioa, Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak 2018ko ekainaren 26an onetsitakoa.



10 x 10 km-ko UTM laukiak, Cortaderia selloanaren presentzia dutenak [Iturria: (4)]

### Prebentzioa, kontrola eta desagerraraztea

Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan [EEIEK,<sup>(5)</sup>] sartutako espezia denez, Nafarroa behartuta dago bere populazioen jarraipena egitera, horien hedapena baloratzeko. Beste murrizketa batzuek gainera, EEIEKn sartzeak esan nahi du baimenik ez dagoela espezia horren merkataritzarako, erabilera edozein dela ere, apaindurarena barne.

EEIEK arautzen duen Errege Dekretuaren 15. artikulua aplikatuz, Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak dokumentu hau onartu zuten 2018ko ekainean: "Kontrolako estrategiak - Orientazio-irizpideak. Panpako luma-motua (Cortaderia selloana) eta Cortaderiako beste espezia batzuk kudeatzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko estrategia, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak (MITECO) eta autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek batera egina.

Kontuan hartuta espezia horren naturalizazioak nabarmen eragindako eremuetan, Gipuzkoan eta Bizkaian bezala, egindako kontrol-esperientziak, Nafarroako Errepide Sareko gune berdeak mantentzeko lanen esparruan (Garapen Ekonomi-

koko Departamentua\_GAN-NIK), 2017an kontrol-lanak egin ziren gure erkidegoko hainbat errepide-tan.

Lanak honako ardatz hauetan zentratu ziren: N-121-A (Iruña - Behobia), NA-1210 (Arraizko Bentak - Endarlatsa), A-15 (Leitzarango autobia), N-240-A (Iruña - Gasteiz), PA-30 (Iruñeko ingurubidea), NA-8107 [Olatzerako sarbidea (Eguesibarra)], NA-30 (Landabengo sarbidea), PA-34 (Iruñeko Mendebalderako sarbidea), NA-6001 (Ezkirotz - Imarkoain), NA-

7135 [Irantzu (Monasterioa)], AP-15 (Nafarroako autobidea), NA-128 (Azkoien - Zarrakaztelu - Zaragozako muga), NA-5200 (Ribaforada - Cortes).

Jarduerak ale espontaneoan eta landaketa apaingarrien gainean egin ziren. Jarduketa hauek egin ziren: landarearen aireko zatia moztu eta herbizida bota. Lanak egin ondoren horien jarraipena egiten ari dira. Cortaderia selloana kontrolatzeko eta desagerrarazteko lanak funtsezkoak dira komunikazio-bideetan, espezia leku sentikorretara hedatzeko gune nagusietako bat baitira, hala nola naturaguneetara, larreetara eta belardietara.

(4) GAN-NIK, *Gestión Ambiental de Navarra-Nafarroako Ingurumen Kudeaketa*. 2019. *Nafarroarentzat kezkarria den flora exotiko inbaditzailearen fitxak*. Argitaratu gabea. Nafarroako Gobernuak.

(5) EAO, 2013ko 185. zenbakia. 630/2013 Errege Dekretua, abuztua 2koa, *Espezia Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duena*.

### SAGAR-BARRASKILOA

“Sagar-barraskiloa” espezie exotiko inbaditzailea da Iberiar Penintsulan, eta Nafarroan, gaur egun, ez dago haren aipamenik edo zantzurik.

Hego Amerikan jatorria duen Pomacea generoko molusku gasteropodo bat da, bere banaketa-eremutik kanpo espezie inbaditzaile gisa jokatu duena. Izurrite handiak eragiten ditu arrozaren laborantzan (garrantzitsuenetakotzat jotzen dira) eta berezko habitata osatzen duten hezeguneetan (MAGRAMA, 2015).

Iberiar Penintsulan, espeziea Katalunian (Ebroko Deltan) antzeman zen lehen aldiz 2009an. Hortik aurrera espeziea azkar zabaldu zen eremu horretako arroz-soroetan. Gaur egun, haren presentzia mugatuta dago Ebroko Deltara, Tarragonako probintzian (MAGRAMA, 2015).

Iberiar Penintsulako beste arroz-eremu batzuetan edo arro hidrografikoetan espeziearen ale-

rik hauteman ez den arren, 2019an Aragoiko Gobernuak bi ale hil aurkitu zituen Matarraña ibaian, Fayón (Zaragoza) parean. Aragoiko Gobernuak, 2013an, zenbait kontingentzia neurri onartu zituen espeziearen ezarpena prebenitzeko. (<http://www.boa.aragon.es/cgi-bin/BRSCGI?CMD=VEROBJ&MLKOB=754560562424>). Katalunian egindako ekintza-plan intentsiboak (itsasoko urarekin egindako tratamenduak, saponinak, neguko lehortzea, kanalak garbitzea, errunaldiak eskuz kentzea, tranpak

eta aurrera egiteko oztopoak) etorkizun handiko emaitzak izaten ari dira, eta kasu batzuetan izurria zabaltzea saihesten ari dira (<https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/santidad-vegetal/caracol-manzana/>).

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López



## Galdera, Sodena enpresa publikoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sodena enpresa publikoari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 10-19/PES-00143 galdera idatzia egin du Sodena sozietate publikoari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Gobernu berriak ezarritako helburuei dagokienez, 2019-2023 Legegintzaldirako Programa Akordioak hainbat akordio biltzen du, eta horiek lortzeko Sodenak Nafarroako Gobernuaren tresna-sozietate gisa lan egingen du. Bere jarduera, nagusiki, lurraldearentzat balio erantsia duten enpresa-proiektuak erakartzean eta garatzean zentratuko da, bai eta espezializazio adimendunaren estrategiaren diseinuaren eta ezarpenaren koordinazioan ere, eta horrek lankidetzat, hazkundera eta lehiakortasuna bultzatuko ditu, eta lagungarri gertatu da eskualdearen garapenerako eta kalitatezko enplegua sortzeko.

Sodena administrazio-kontseiluaren erabakiz onetsitako sozietatearen 2019rako kudeaketa-plannaren aginte-koadroan jasotako helburuak betetzen ari da. 2020ko lehen hilabeteetan administrazio kontseiluak datorren urterako kudeaketa-plan berria onetsiko du.

Jarraian, 2019-2023 Legegintzaldirako Programa Akordioko puntu batzuk aipatzen dira, zati batean edo osorik eragiten diotenak Sodenaren jarduerari, eta parentesi artean epigrafe desberdinen zenbakizko erreferentziak adierazten dira, aipatutako programa-dokumentuan jasotzen diren bezala:

(3.5.)- Enplegua eta aurrerabide ekonomikoa

#### Lehiakortasunari eta eraldatze digitalari bultzada

- (9) Nafar enpresen finantzaketa-neurriak indartu, kreditu-lerroak sendotuz, abal publikoen programak definituz, eta proiektu estrategikoei babesa emanaz SODENaren eta Elkarrenganako Berme Sozietateen bidez.

- (11) S3ren esparruan lurraldea lehiakorra izateko estrategikotzat jotzen diren inbertsioen aldeko apustua, eta bereziki zenbait arlotan: nazioartekotzea, ikerkuntza eta garapena.

- (12) Nafarroako industrialdeetara enpresak erakartzeko neurriak dituen estrategia integralari bultzada, batez ere babes txikiagoa edo enplegua sortzeko premia handiagoa duten eskualdeetara, lurralde-kohesioko politikarekin eta despopulaztearen aurkako borrokarekin bat eginez.

- (13) NASUVINSA eta SODENaren bidez, aholkularitza integrala eskainiko dugu enpresak lokalizatzeari dagokionez. Enpresei orientabidea emanen diegu ezarpenarako eta industria-zorurako diru-laguntzak izapidetzeko.

#### Enplegua, talentuaren kudeaketa eta gizarte-elkarrizketa

- (14) Eremu sozio-ekonomikoan, aitzina jarraitu akordioaren kulturen, itunetan, parte-hartzean eta elkarrizketan, erabakiak hartzeko garaian. Azken sasoiari S3 esparru estrategikoan egin izan den bezala, akordio estrategikoak sustatuko ditugu Nafarroako Gobernuaren eta gizarte- eta enpresa-entitateen, unibertsitateen, teknologia-guneen eta enpresen artean, xedea izan den delarik hazkunde-eredu jasangarrirako eta garapen sozialerako eredu bat garatzea, helize laukoitza osatzen dutenen artean kontsentsuan oinarriturik.

#### **Ekintzailletza**

- (32) Ekintzaileentzako inguru erakargarriak sortzen jarraitu, bereziki langile autonomoentzat eta enpresa txikientzat, eta zehazkiago, berrikuntzaren arloan eta arlo digitalean hazteko gaitasuna izan lezaketan enpresen sorrera bultzatu. Era berean, garrantzia emanen zaio familia-enprese-tan belaunaldien arteko erreleboa errazteari.

- (34) Navarra Tech Transfer funtsa osatu eta, beharrezkoa balitz, handitu. Funts horren xedea oinarri teknologikoko enpresa berriak Nafarroan ezartzea da. Erosketa publiko berritzaileerako aukerak aktibatu, ahal den neurrian ezarpen horiei

laguntzeko. S3aren sektore estrategikoetako enpresen eraketarekin zerikusia duten berariazko finantza-funtsetan parte hartu.

- (35) SODENAREN bitartez, arriskuko kapital-funts estrategiko baten garapena gidatu, zeinaren xedea izan den baita Nafarroan funtsezkoak diren enpresen hazkunde eta errotzea. Horretarako baldintza izanen da funts horrek egiten dituen ekarpenak operazio finantzariotzat hartuak izatea, aurrekontuen egonkortasuna erregulatzeari dago-kionez.

- (36) Langile autonomo berrientzako laguntza-eta babes-programak garatzen jarraitzea eta sakontzea, negozioa sortu ondoko lehen hiru urte-etan ekintzaileei ematen zaizkien berme- eta orientabide-mekanismoak eta zerbitzuak hobetuz. Inbestitzaile pribatuen eta business angels direlakoaren sarea hedatzen saiatuko gara, elkarrekin lankidetzan jardutea eta digitalizaziora sarbidea izatea erraztuz.

#### ETEak eta ekonomia soziala

- (39) ETEak nazioartekotzeko eta hazteko finantzazio-lanabes publikoen modernizatzea, diseinua eta koordinazioa hobetu: parte-hartzezko maila-eguen bidez, eta arrisku-kapital publikoak, ETEak haztea eta dibertsifikatzea sustatu, epe luzean enplegua sortzea ekarriko duten proiektuetan.

- (40) Sektorekako multzoak edo enpresa-klusterrak sustatu, eskualdeetan industria sektoreen lehiakortasuna handitzeko beharrezko elementuak diren neurrian. Finantza-babes esanguratsua eman horrelakoei, eta erabakietan parte har deza-tela bultzatu.

#### Enpresen finantzaketa

- (46) Elkarrenganako berme-sistemari laguntza. SODENARI lagundu, enpresen garapenerako eta bultzadarako ezinbesteko tresna den heinean, aintzat hartuz etengabeko ebaluazioa eta haren prozeduren hobekuntza, analisisirako, hautaketarako eta inbertsioak kudeatzeko.

#### Industria

- (50) Epe luzeko estrategia diseinatu atzerriko enpresak erakartzeko, industria-oinarri sendoagoa eratzeko, enpresen kudeaketa hobetu eta dibertsifikatzeko, S3an bildutako sektoreei lehentasuna emanez.

- (54) Automobilgintzaren sektorean, jarraitu NAVEAC Proiektua sustatzen. SODENAREN bitartez, proiektu hori Nafarroaren industria-gaitasuna garatzen ari da, Ibilgailu Elektriko, Autonomo eta Konektatuaren (VEAC, gaztelaniazko sigletan) mugikortasun-eredu berri baten inguruan, Espe-

zializazio Adimentsuko Estrategiaren (S3) barnean, eta haren 24 Erronka Estrategikoetako lehena, hau da, ibilgailu elektrikoa sustatzea. Xedea da “automobilgintzako industria sektorearen gaitasuna ibilgailu elektrikoa eta haren osagaiak gartzera bideratu, eta era berean mugikortasun-aukera berriak garatzea eta ezartzea Nafarroan (konektatutako ibilgailua, gidatze autonomoa,..)”.

- (54.aren jarraipena) Halaber, automobilgintzako nafar enpresak egonkortzeko eta dibertsifikatzeko neurri aktiboak sustatu, produktuen, zerbitzuen eta merkatuen alorretan, Nafarroan sektorearen egitura eta jarduera indartzeko asmoz. Esandako guztia Industriekin, Teknologia Guneekin, Formazio Guneekin eta Gizarte Eragileekin lankidetzan gauzatuko da.

- (56) Nekazaritzako elikagaien sektorea “Especializazio Adimentsuko Estrategia”-ren lehentasunezko giltzarrietako bat izatearen aldeko apustua egin. Sektore hori funtsezkoa da Nafarroako landa-eremuen garapen sozio-ekonomikorako, eta haien egiturazko ardatzetako bat.

#### Azpiegiturak eta garraioa

- (61) Analisi zorrotza egin Frankfurtekiko loturaren maiztasuna handitze aldera eta Noain-lruñeko aireportuan ibilbide berriak ezartze aldera konpainiekin negoziazioa bultzatzeko aukera aztertze. Erreferentziarako aireportuetarako autobus-linea erregularrak ezarri.

- (67) Argindar-kontsumo berriztagarria duten mugikortasun autonomoko ibilgailuak sustatu. Mugikortasun Eraginkorreko Plana, igorpenei dagokienez murriztailea. Argindarra birkargatzeko guneak sustatu herrietan eta bizilagun komunitateetan. NAVEAC plataformaren aldeko apustua.

Sozietate publikoaren egituraren egindako aldaketek eta horien helburuak zehazteari dagokienez, Sodenako administrazio-kontseiluak, joan den irailaren 30eko bilkuran hartutako erabakien artean, José Manuel Arlabán Esparzak kontseilari berriaren kargua onartzea jaso zuen. Kargu horretarako bazkide bakarraren (Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa) aurretzako erabaki batez izendatua izan zen; erabaki berean gainerako kideen berrautaketa eta egonaldia ere jaso ziren, eta Pilar Irigoien Ostiza zuzendari kudeatzailearen jarraipenarekiko adostasuna agertu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria

## **Galdera, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafikogorabeherei, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Elena Llorente Trujillo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Berrikuntzaren Hiria etorbidean sartzeko biribilguneko trafikogorabeherei, istripuei edo harrapatzeei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Elena Llorente Trujillo andreak 10-19/PES-00144 idatzizko galdera egin du Berrikuntzaren Hiria etorbidearen sarrerako biribilguneko (PA-33 errepidea) trafikoko istripuen tasari buruz. Horri erantzuteko, honako hau jakinarazi behar dugu.

1. PA-33 errepideko biribilgune horri dagokion istripu-tasari dagokionez, azken bi urteetan (2018-2019) 48 istripu erregistratu dira.

Hala ere, argitu behar dugu datua PA-33 bidean erregistratutako istripu-tasari dagokiola; izan

ere, biribilgune batean ez da erraza ziurtatzea polizia-txostenetako kilometro-puntuak galderaren goiburuan aipatutako bideari dagozkiola baieztatzeke bezain zehatzak direnik.

2. Bigarren puntuari dagokionez, argitu behar da une honetan Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia trafikoari eta mugikortasunari buruzko azterlana egiten ari dela; azterlan hori honako honetan datza: egungo egoeraren mikrosimulazio bat egitea, hura bertatik bertara ikusten den problematikarekin kalibratuz eta balioztatuz, 2018-2019 urteko hilabete adierazgarrietan egin ziren jatorri/destino matrizeetan oinarrituta.

Gaur egun, trazaduraren eta funtzionamenduaren hainbat aldaketa aztertzen ari dira, dauden arazoak konponduko dituen diseinua lortzeko, garraio publikoarekin, oinezkoen moduarekin eta bizikletaren moduarekin bat etor dadin eta kostu/eraginkortasun erlazio onena izan dezan. Behin azterketa hori amaituta, hurrengo pausoa dagokion proiektua egitea izanen da, zehazten den irtenbidean oinarrituta.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

## **Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 8ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeari buruz (10-19/PES-00148). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Honako hau izan da Tramit@ oinarrizko gizarte zerbitzuetan ezartzeko egutegia:

#### **2015:**

- Altsasu
- Leitza
- Etxabakoitz

#### **2016ko lehen seihilekoa:**

- Tafalla
- Burlata
- Lizarra
- Barañain
- Azkoien
- Corella - Castejón
- Zangoza
- Noain
- Cascante

#### **2016ko bigarren seihilekoa:**

- Txantrea
- Arrotxapea
- Buñuel
- Zarrakaztelu
- Artaxoa

- Etxarri-Aranatz
- Atarrabia.
- Doneztebe
- Irurtzun
- Zizur
- Lesaka
- Aranguren Ibarra
- San Adrián
- Elizondo
- Orkoien
- Erriberri
- Viana
- Valtierra
- Aiegi
- Los Arcos
- Antzin-Ameskoa
- Buztintxuri
- Berriozar
- Zaraitzu Ibarra
- Gares
- Ultzama
- Eguesibar
- Izaba
- Tuter
- Allo
- Cintruénigo

#### **2017ko lehen seihilekoa**

- Lodosa-Mendabia
- Arrosadia - Azpilagaña
- Sanduzelai
- Alde Zaharra
- Iturrama
- Uharte
- Zabalgunea
- Ermitagaña / Mendebaldea
- Mendillorri
- Donibane
- Auritz

#### **2017ko bigarren seihilekoa**

- Villatuerta

**2018ko lehen seihilekoa**

• Agoitz

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 27an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---